

Vitoria-Gasteiz 16/04/15

EUDELen Batzar Orokorra /2. zatia

Imanol Landa, Elkarteburua

(I. EUDL berrirako Lege Berria)

Orain, Batzarraren bigarren zatiarekin egingo dugu aurrera. Eskerrak eman nahi dizkiot Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia sailburu Josu Erkorekari, gaur gure artean dagoelako.

Eskerrik asko Sailburu jauna, EUDL Batzar Orokor honetan egoteko gonbidapena onartzeagatik. Ezinezkoa zen une egokiagorik aukeratzea euskal udalerrien arteko bilera hau egiteko. Izan ere, gaur, apirilaren 15ean, ostirala, jarriko da indarrean **Euskadiko Tokiko Erakundearen Lege** berria.

EUDLEk beti nahi izan du Udal Legea, izaera instituzionala duen aldetik, adostasun handiko Legea izatea. Orain, lortu egin dugu. Lege honek instituzioen babesa jaso du lehenik, eta, bigarrenik, Euskadiko udal gehienak gobernatzen dituzten legebiltzarreko bi taldeen akordio politiko nahikoa eskuratu du. Aldi berean, EUDLEk deitoratu egiten du akordioa zabalagoa ez izatea; izan ere, nahiago luke gainerako taldeek ere parte hartu izana.

Hala ere, lortu ahal izan den Legea dugu, eta, orain, sinetsi egin behar dugu harengan. Hemendik aurrera, Legea abian jartzeko, **udal autonomiaren defentsan izango dituen gaitasun guztiak baliatzeko** eta udaletan izango duen ibilbidea bermatzeko, inoiz baino beharrezkoagoa izango da talde politikoaren euskarria izatea, ahalik eta gehienena.

Euskadiko Udalen Elkartean **konpromiso sendoa daukagu borondateak pizteko**, hasieratik bertatik Legea arin eta era partekatuan garatu ahal izateko.

Hain zuzen ere, Legeak ematen dizkigun zeregin berriek areago indartzen dute EUEDEL, Euskadiko udalen adierazpide eta solaskide gorena izan dadin.

Illo horretan, gaur oso egun berezia da Elkar-tearentzat, bi arrazoi-rengatik. **Gaur, Lege berria dugu, EUEDEL berriarentzat**; izan ere, gaur goizean udalen Batzar honen adostasun handienarekin onetsi berri ditugu estatutu berriak.

Estatutu horiek dira EUEDEL berriaren oinarria, Euskadiko udalen orainaren eredua eta etorkizunerako proiektua. Euskadiko udal guzti-ekin batera idatzi nahi dugu kontakizuna, 251 errealitate desberdin, oso ezaugarri eta profil desberdinetako udalak garela aintzat hartuta.

Estatutu berriei esker, Euskadiko udaletako **sentsibiltate politiko guzti-ek** izango dute aukera EUEDELeko erabaki- eta **zuzendaritza-organoetan sartzeko**. Aurrera egindako beste urrats bat, Elkar-te honek arrandiaz erakusten duen **plural-tasuna** areago nabarmentzeko.

(II. Bultzada berria Euskadiko tokiko politikari)

Gaur, zorionekoa naiz, zorionekoak gara. Ohore handia da niretzat Euskadiko udalen ordezkaria izatea, noiz eta hainbeste irrikatutako Euskadiko Udal Legea iritsi den unean (*izen hori izango baitu beti gure gogo-bihotzetan*). Pozik nago, Lege honek ematen dizkigun sendotasunengatik, baina, batez ere, irudikatzen duenarengatik. Euskadiko alkateen eta zinegotzien lan nekezaren onarpen instituzionala ere bada.

Zuek badakizue zertaz ari naizen. Euskadiko tokiko politikak adimenez baliatu ditu gure herriaren berezko izaerak dituen dohainak: **irmotasuna, ahalegina, ilusioa, zintzotasuna eta konpromisoa**.

Lan eta lan, ezina ekinez egina. Neurri batean, udalek izan dugu gure herri eta hirietan eta, oro har, euskal gizarte osoan izan den eraldaketaren erantzukizuna.

Tokiko politika aurreratuak garatu ditugu, foru-aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean. Udalen barruan ere sentsibiltate desberdinetako pertsonak aritu dira lankidetzan. Partekatutako lanari esker, Euskadiko udalek bizitza-kalitateko estandar altuak ditugu gaur egun, Europako inguruneetan homologatzeko modukoak.

Iraganean hori gertatu bada, **etorkizunean ere horrela izatea** komeni da. Gaur, inoiz baino gehiago, **udaletatik herrialdea egiten jarrai dezakegu.**

Euskadiko udalak abesbatza gara, kordada, trainerua, denok batera arraunean, denok bat, helmugara heldu arte.

(III. Lege Integrala: Eskumenak eta finantziazioa)

Jo dezagun orain Lege honen eduki zehatzera. Lehenik eta behin, nabarmendu nahi dut euskal **herritarrek beraiek direla Legearen azken hartzaileak.** Horregatik, garrantzitsua da Legeak autogobernurako maila altuak dituen erabakigune politikoa garela onartzea, gure herritarren beharrianak eta interesak ahalik eta ondoen betetzeko.

Lege berria gure instituzioen arkitekturako behin betiko pieza da, **sistema interdependenteko** giltza. Legeak udalei ematen dien zeregin instituzionala **hiru ardatzen** inguruan dago egituratuta: gure udal-eskumenak, eta finantziazio bideak eta formulak definitzen ditu; eta, udaletan lan egin ahal izateko, prozedurak ezartzen ditu gainerako instituzioekin lankidetzan aritzeko.

Legeak **segurtasuna eta ziurtasunak** ematen dizkigu udal-esparruan. Autonomia handiagoa ekartzen digu toki-arloan, eta babesa bermatzen du. Azken batean, horrek esan nahi du udalek gaitasun eta eraginkortasun handiagoa izango dugula etorkizuneko eta berehalako desfioei heltzeko.

Hori horrela, Tokiko Erakundeen Lege berriak gure udalei zabaltzen dien aldiak ilusioa ernarazten du. Edukiz hornitzen du gure **udal-autonomia**, eskumenen sistema sendo batez. Eta, garrantzitsuena dena, bermeak ezartzen ditu etorkizuneko legeek edo arauak tokiko autonomia hori murriztu edo urratu ez dezaten.

Zaintza-lan edo 'alerta goiztiar' hori **Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeari** dagokio. Udal-ordezkariek eratzten dute batzorde hori osorik.

Eta, Batzordearekin batera, **Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua** ere sortu da, herrialdeko politika guztiak diseinatzeko hiru instituzio-mailatan lankidetzan aritzeko organoa izan dadin.

Gure tokiko autonomia erabiliz, Legeak berezko 37 eskumen onartzen dizkigu, hau da, udalek egin ahal izango ditugun zerbitzuen zerrenda zabala. Berrikuntza gisa, **euskara** izango da berezko eskumen horietako bat. Hemendik aurrera, udalek eskumena izango dugu euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzeko: lehenik, laneko hizkuntza gisa; bigarrenik, beste administrazio batzuekin harremanetan jartzeko hizkuntza gisa –eta gure dokumentu ofizialak euskara hutsez egiteko segurtasun juridikoa izanda–, eta, hirugarrenik, gure herritarren zerbitzura dagoen hizkuntza moduan.

Hala ere, eskumenen eta finantziazioaren artean dagoen harreman estua da Euskadiko Legearen bereizgarri nagusia. Esan bezala, **Lege integrala** da honako hau; izan ere, argi arautzen du zein diren udalen zereginak, eta, aldi berean, tresnak ezartzen ditu instituzioak elkarren artean erlazionatu daitezen, garapenerako finantziazio egokia lortzeko.

Legeak ezartzen du udalek etorkizunean egingo duten **zerbitzu berri** guztiek finantziazio nahikoa eduki beharko dutela. Eta, egungo zerbitzuei dagokienez, Legeak finantziazio gehiago jasotzen du, egin gabe dauden hiru arlori erantzuna emateko; hona arloak: **gizarte-larrialdiko laguntzak (GLL), udal-euskaltegiak eta musika-eskolak**. Dakizuenez, hiru gai horiek udalen eskumenetatik kanpo zeuden orain arte, baina, hala ere, haietan aritu izan gara, baliabide nahikoa izan gabe, gure herritarren eskaerei erantzun nahian.

Egin gabe dauden gai horietako bakoitzari irtenbide berezia emateko, Legeak hiru lan-batzorde berri sortu ditu. EUDEL era aktiboan arituko da hiru mahai horietan, tokiko interesen alde.

GLLei dagokienez, Legeak ardura ematen dio Eusko Jaurlaritzari udal batzuek beren borondatez ematen duten osagarriaren ehuneko bat finantzatu dezan. Legeak finantziazio gehiago bermatzen du osagarri horri ekiteko.

Finantziazioa hizpide hartuta, ezin dugu aurrerapen nagusia aipatu gabe utzi. Udalek hitza eta botoa izango dituzte **Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan**. Aurreneko aldiz, finantziazioaz eztabaidatzeko eta erabakitzekeko gune bat zabaldu zaie udalei Euskadin; gure ingurutik kanpo ere ez dago horrelakorik. Horrenbestez, tokiko erakundeek legearen arabera, Euskadiko erakunde publikoen **finantziazioari buruzko eztabaidaren erdigunean** egongo dira udalak.

(IV. EUDELen zeregina, aktore garrantzitsu gisa)

Hemen, ezinbestez nabarmendu behar dugu **EUDELe**k Finantzen Euskal Kontseiluan duen **funtsezko papera**. Legeak gure Elkartearen esku uzten du finantziazioari buruzko eztabaidan tokiko interesak babestuko dituzten hiru udal-ordezkariek Lehendakariari proposatzeko ardura.

Ez dago zalantzarik; Kontseilu honetan dauden tokiko ordezkariak erantzukizun handiko zeregina dute, eta horrek prestakuntza egokia eskatzen du. Gure erantzukizun berriek Elkarteak erronka berrietara egokitzea eta horien arabera funtzionatzea eskatuko dute, horretarako neurri eta bitarteko nahikoak baliatuta. Ez naiz gehiago luzatuko.

(V. Amaiera)

Legea nahi genuen, eta badugu. Legeak helmuga berriak zabaltzen ditu, baina, udalak eta instituzioak elkarlanean aritzen ez bagara, ez ditugu lortuko.

Orain, udalek ondo konfiguratuta behar dugu sistemaren barruan **dugun berezko espazioa**. Legeak bide berriak zabaltzen ditu tokiko autogobernuaren berezko eredu berezia garatzeko. Hala, beraz, atera diezaiozun zuku guztia Legeari, **zabal dezagun bere potentzial osoa arduraz eta gure interesen arabera, betiere, eraikitzeke asmoz**.

Bukatzeko, hasieran erabili dudak adibidea ekarriko dut berriz. Lege hau da gure udalek behar zuten trainerua, norabide finkoz portu berrietarantz nabigatzeko aukera emango diguna.

Itsasoaren egoera edozein izanik ere, haizea alde edo aurka izan, beti izango dugu gogoan Euskadiko udalen benetako indarra gure eskifaia osatzen duten pertsonak, gizon-emakumeak, direla. Hortaz, hartu adorea, eta egin dezagun arraun **denok batera**, norabide onean.

Eskerrik asko.